259. zk.
Bigarren aroa
Abuztuak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

EUSKAL JIRA 2015

Argazkiak: Ivan Macia

Gaztea
Gaztefolk jaialdiaren XIX. edizioa.
13. orrialdea

Kirolak
Xabier Otermin ez da Real Unioneko atezain izango.
9. orrialdea

4-7 Euskal Jira: Erreportajea argazkietan.
8 Kirolak Irungo Txirrindulari Elkarteari buruzko erreportajea.
10 Elkarrizketa Demetrio Grijalba Irungo erromesen aterpetxeko arduradunari elkarrizketa.
11 Haurren lanak El Pilar Ikastetxea. 6. maila.
12 Gazteen lanak Txingudi Ikastola BHI 1. maila. Jon Namib Martinez Ubierna
12 Gaztea Gaztefolk
14 Gazte infor
14 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Ander Otxoteko.
Iruni buruz hitz egiten denean, gehienetan, herriari buruz hitz egiten da, eta gutxitan bere naturari buruz. Argazki hau bidali nahi izan dut Iruneroren lehiaketan parte hartzeko, Aiako Harria leku bikaina iruditzen zaidalako.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Junkal karrika

IUA: 41406

Junkal karrika, 1859ko kale-izendegian ageri da. Dunboa kanalaren erriberan eta Bidasoa ibaiak Irun zeharkatzean bustitzen zituen lurretan hedatzen ziren ihiek ematen diote izena. Ihitokiek garrantzi handia izan zuten mendeetan zehar Irunentzat, izan ere, udalerriaren behe lurretan, ur ondoan kokatzen ziren eremuak basalandare horrek betetzen zituen. Urari irabazitako lurrak ustiatzeko baimenak ematen hasi zirenean, liskar larriak izan ziren Irunen eta Hondarribiaren artean, lur horien ustiaketaren emakida zela eta.

Bestalde, Irungo patroiak ere ihiaren izena darama, kondairak dioenez Ama Birjinaren irudia ihitokian agertu zelako, XIII. edo XIV. mendean.

1851n, egungo Junkal karrika, Juan Jose Olazabalen jabegoetatik igarotzen zen bidea zen. Jabeak publikoki erabiltzeko baimena eman zuen, baldintza batekin: udalari agiri bat eskatu zion, lur horien jabe zela frogatzeko.

Goiko argazkia 1970. urtekoa da. Bertan, Bidasoa Ibaiaren Jaitsieraren IV. ekitaldiaren desfilea ikus daiteke, Junkal karrikatik pasatzen. Ondoan Junkal karrika ikus daiteke, gaur egun.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Giro paregabea 2015eko Euskal Jiran

Argazkiak: Ivan Macia

1

2

1. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako armarriak eraman zituzten Euskal Jirako gurdian.

2. Hendaiarrek euskal ezkontza egunaren gaia aukeratu zuten.

Olaizola
Immobiliaria agentzia

- Salmenta-Alokairuak
- Promozio berriak
- Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

1

1. Anaka 1881 eta Gordezan elkarteetakoek “Endanea Baserria” gaiaren inguruko gurdia prestatu zuten.
2. “Zelai berriko oilategia” izan zen Behobiko kideek irudikatu zuten lana.

2

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla bacalaos
Egullor Bacalaos

Argazkiak: Ivan Macia

1. Meakako auzo-lagunek “Toka txapelketa” izeneko lana prestatu zuten.
2. Kemen Dantza Taldeak euskal herri inauteriarekin lotutako gurdia landu zuen.

1

2

T & T Hizkuntzak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
-Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 62 59
academiatyt@gmail.com

1

2

1. Santiago Auzo Elkartekoek opil handi bat eraman zuten aurtengo gurdian.
2. Real Union klubak mendeurreneko gurdia prestatu zuen, ondorengo osagaiekin: ate txiki bat, entrenatzeko erabiltzen diren objektuak eta ikurriña Stadium Galen lehen aldiz atera zuten eguneko argazkia.

Argazkiak: Ivan Macia

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Irunen ere badu ordezkaritza txirrindularitzak

Udaran arreta gehien jasotzen duen kiroletako bat da txirrindularitza. Frantziako Tourrak pizten duen suari, Donostiako Klasikoak ematen dio jarraipena. Aurten ere, profesionalen tropela eskualdeko errepideetan zehar ikusteko aukera izan zuten zaleek abuztuaren 1ean. Irungo Txirrindulari Elkarteko kideei, aldiz, antolakuntzan lan egitea egokitu zitzaien. "Irungo errepideetan egon ginen bakarrik. Bordako Tontorreko istripuan zer ikusirik ez genuen izan", argitu du, umorez, Javier Uranga elkarteko presidenteordeak. Opor garaia da orain elkartean, baina laster hasiko dira hurrengo denboraldia prestatzen.

Juanma Garatek erretiroa hartu zuenetik, Irungo txirrindularitzaren ordezkaririk ez dago goi mailan. Hala ere, bizikletaren kirola sustatzeko lan fina egiten jarraitzen dute Irunen. Ez da atzoko kontua, gainera. Aurten, Real Unionen mendeurrenaren harira, argitara atera dira elkarte txuribeltzak XX. mendearen hasieran izan zuen txirrindularitza sekzioaren argazkiak. Txapeldun handiak eman zituen Irunek garai hartan. Ricardo eta Luciano Montero anaiek izan zuten oihartzun handiena, laugarren eta bigarren izan baitziren, hurrenez hurren, Munduko Txapelketan. Txirrindularitzarekiko loturari eutsi zion Real Unionek, Stadium Galen inguruko belodromoa eraiki zutenean.

Gaur egungo Club Ciclista Irunés/Irungo Txirrindulari Elkartea 1969an sortu zen, C.C. San Miguelen lekukoa hartzeko. "Txirrindularitza zale batzuk biltzen hasi ginen, elkarte bat sortzeko asmoz. Nahiko sakabanatuta zebilen jendea, eta bilgune bat behar genuen", gogoratu du Javier Uranga presidenteordeak. Club Ciclista Irunés izena jarri zioten, XIX.mendearen amaieran izen bereko beste elkarte bat izan zela jakin gabe. "Beranduago esan ziguten beste C.C.Irunés bat egon zela. Bost urteko iraupena besterik ez zuen izan", azaldu du Urangak. Uranzu kalearen inguruan ibili izan da beti Irungo Txirrindulari Elkartea. Hasieran La Agricola zaharrean, Julio tabernan edo Ventura-Aizpuruaren sotoan elkartzen ziren. Gaur egun Santiago kalean lanean dabilen Xalba Riveraren tailerra ere kanalaren ondoan zegoen. Orain Uranzu kaleko 39.ean du lokala Irungo Txirrindulari Elkarteak.

Harrobiko lana, oinarri

Harrobia sortzeko asmoz jarri zuten martxan elkartea. 1973an urrats handia eman zuten, Bidasoako Txirrindularitza Eskola sortu baitzuten, Gipuzkoako Federazioaren babesarekin. Laster eman zituen emaitzak orduan hasitako lanak. Jose Luis Mayoz, Juan Gorostidi eta Jose Antonio Martiarena maila profesionalean aritu ziren ondorengo urteetan. Gorostidi Espainiako Txapeldun izan zen ziklokrosean, Irungo Txirrindulari Elkartearen maillotarekin. Martiarenak Seulgo Olinpiadetan parte hartu zuen, pistan. Elkartean haziitako azken profesionala Juanma Garate izan da. 2014aren amaieran utzi zuen txirrindularitza, azpimarratzeko moduko palmaresarekin. Garateren bilakaera harrigarria izan zela uste du Javier Urangak: "Txikitan ez zuen lasterketarik irabazten. Afizionatuetan hasi zen nabarmentzen. Hortik aurrera, maila handia emateaz gain, mutil azkarra dela erakutsi zuen".

Gaur egun, esperientzia hori Irungo Txirrindulari Elkarteko gaztetxoei helarazten saiatzen da Juanma Garate. Astean behin elkartzen da haiekin, hitzaldiak emateko. Gaztetxoentzat "luxua" dela gogoratu du Urangak: "Lasterketak irakurtzeko dohaina zuen Garatek. Ea ahalmen hori transmititzen dien, garrantzitsua baita". Jakina da, baina, lanaren zatirik handiena lokaletik kanpo egin behar izaten dutela txirrindulariek. Errepidean. Horixe da, hain zuzen ere, haurrak erakartzeko oztopo handienetako bat. "10-12 haurrekin errepidera irteteak arriskua dakar", onartu du Jon Unanue entrenatzaileak. Gurasoak istripuen beldur dira. Hori dela eta, pista baten beharra aldarrikatu du Javier Urangak: "Asko erraztuko luke hastapeneko lana. Udalari eskatu izan diogu, ez baita kostu handiko gauza". Pistan aritzearen onurak azaldu ditu Unanuek: "Pistan talde batean ibiltzen dakienak, tropelean ez du zailtasunik topatuko. Hori izaten da, hain zuzen ere, txirrindulari askoren arazoa".

Trialsinak arrakasta izan du

Trialsin modalitaterako, behintzat, Irungo Txirrindulari Elkarteak lortu du behar zuen azpiegitura. Puianako zirkuituan entrenatzeko eta lehiatzeko aukera dute orain trialsinean ari diren gaztetxoek. Modalitate horretan lortu du azken aldian elkarteak garaipen gehien. "Ez da jende asko aritzen, baina dabiltzan horiek maila handia dute", azpimarratu du Javier Urangak. Kategoria guztietako txirrindulariak dituzte trialsinean. Errepidean eta pistan, aldiz, jubeniletan amaitzen da Irungo Txirrindulari Elkartearen ordezkaritza. "Afizionatuen talderik ez dugu, txirrindularirik ez dagoelako. Jubenil mailatik aurrera jarraitzea zaila da. Unibertsitatean hasten dira, eta askotan kanpora joaten dira ikastera", argitu du Javier Urangak.

Irailean ekingo dio Irungo Txirrindulari Elkarteak hurrengo denboraldiari. Asteartetan eta ostegunetan egingo dituzte entrenamenduak, arratsaldeko seietatik aurrera. Hasi nahi duten haurrentzat, irteerak egingo dituzte larunbat eta igande goizetan, urrian hasita. Javier Urangak gonbidapena luzatu du: "Goizeko hamarretan gelditukо gara, eta edonor etor daiteke, mendiko bizikletarekin". Eguraldi txarra egiten duenean, Uranzu pilotalekuan izango dute estalpea.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Atzeko atetik

Hamabosgarren denboraldiari ekin aurretik utzi behar izan du Oterminek Real Union

Aurten Xabier Otermin ez da Real Unioneko atezain izango.

"Beti bezain gaizki dago zelaia", bota du Xabier Oterminek, Stadium Galeko aldageletatik berdegunera daraman atea zeharkatu ondoren. Haserre begiratu du atzera Iñaki Ibargoienek, belarra mozten ari den langileak, adarra jotzen ari zaionari erantzuteko asmoz. Abegia aldatu zaio bisitaria ezagutu duenean. "Xixa! Zer moduz?", galdetu dio, ilusioz. Besarkada luzea eman dute Oterminek eta Ibargoienek. Urte asko egin dituzte biek Real Unionen. Baina udara osoa eman dute elkar ikusi gabe, eta ez dakite noiz egingo duten topo berriro. Xabier Oterminek, Real Union taldearekin partida gehien jokatu duen futbolariak, kluba utzi baitu.

Uztailaren 13an egin zuen lehen entrenamendua 2015/2016 denboraldiko Real Unionek. Eguneko albistea Xabier Oterminen hutsuneak eman zuen. Atezain beteranoak ez zuen lan saioan parte hartu. Klubaren aktualitatea jarraitu ohi duten komunikabide gehienek azpimarratu zuten Oterminen falta. Jon Irazustabarrena "Txusta" atezaina fitxatu zuen Real Unionek, baina bigarren atezaina behar zuen. Horregatik, eta klubak ezezko argirik eman ez ziolako, taldean jarraitzeko itxaropena zuen Oterminek. Bere kabuz entrenatzen jarraitu zuen, egunero. Jon Tenak Realak utzita Irunen jokatuko zuela jakin zuen arte. "Gogorra izan da udara. Deiren baten zain ibili naiz, baina ez dut azalpen handirik jaso", argitu du Oterminek.

> "Nik Real Unionen amaitu nahi nuen ibilbidea"
>
> **Xabier Otermin**

Hogeita hemezortzi urte dituen arren, sasoian dago zarauztarra, garairik onenetan bezain fin. Beste urte bete egiteko moduan ikusten zuen bere burua. Orain ordea, argi dauka erretiroa hartzeko erabakia: "Nik Real Unionen amaitu nahi nuen ibilbidea. Beraz, ez dut gehiago jokatuko". Klubaren erantzun argia eduki aurretik, komunikabide batzuek bere erretiroa ziurtzat jo zutela salatu du: "Mingarria izan zen, ni entrenatzen ari nintzelako oraindik". Konfirmazioaren berri eman ondoren, Real Unioneko harrobian atezainak entrenatzeko proposamena egin diote. Zarauztik, baina, beste eskaintza erakargarri bat jaso du. Nazional mailako jubenilen taldea zuzentzeko aukera eman diote herrian. Erronka ilusioz hartuko duela adierazi du: "Titulua bai, baina esperientziarik ez daukat. Hala ere, aukera polita dela iruditzen zait".

Oztopoei aurre egin die

2000. urteko udaran iritsi zen Xabier Otermin Stadium Galera, Realaren filialean aritu ondoren. Gerora prestatzaile izango zuen Ricardo Costa taldeko atezain zen oraindik. Costak gogoan du Oterminen etorrera: "Taldekide bat gehiago zen orduan. Konpetentzia, gainera. Dena den, laster utzi ninduen aulkian. Maila bat gorago zegoen Xixa". Erretiroa hartuta, Irundik kanpo aritu zen Costa. 2006an bueltatu zen, atezainen entrenatzaile izateko. Aurrerantzean, Oterminen ondoan egon izan da beti. Atezainaren dohainez galdetuta, buruz-burukoa azpimarratu du: "Bere indarra, abiadura eta erreakziorako gaitasuna itzelak ziren. 2. B mailan, behintzat, ikusi dudan onenetarikoa".

> "Azken urteotan kapitainaren lana bete du. Erreferente izan da"
>
> **Ricardo Costa**

Dena den, bilakaerarik handiena, jarreran izan du Oterminek. "Beti izan da lotsatia eta isila. Baina azken urteotan, kapitainaren lana bete du. Erreferente izan da taldean". Nortasuna zailtasun bilakatu da Oterminentzat, bere ibilbidean zehar. 2008ko udan, esate baterako, taldetik kanpo zegoela jakinarazi zion Iñaki Alonso entrenatzaileak. Erabakiaren arrazoia, Oterminen komunikaziorako gaitasuna "eskasa" zela. Azkenean taldean jarraitu zuen, Xabier Jauregik jasan zuen lesioaren ondorioz. Edonola ere, izaera itxi hori, atezainaren arazo handiena izan dela berretsi du Ricardo Costak: "Bere burua saltzen jakin izan balu, 2.B mailatik gora jokatuko zukeen". Hala ere, Oterminen hoztasuna, apurtu egiten da konfiantzazko harreman hurbiletan. "Oso gizon umoretsua da. Txantxetan eta adarra jotzen ibiltzea gustatzen zaio", aipatu du Costak.

Amaiera gazi-gozoa

Zorigaiztoko oroitzapena dakarkion atea aukeratu du Oterminek argazkiak ateratzeko. Kanpokoen aulkiari begira gogoratu du 2005ean Lorca taldeko Ramosek zelai erditik sartu zion gola: "Buelta asko eman nizkion golari. Baina konturatu nintzen futbola ez zela han bukatuko, eta aurrera egiteko, hura baztertu behar nuela". Jende askok, ordea, ez zuen hala nola ahaztu. Ricardo Costak uste du, kritika bidegabeak jaso zituela Oterminek: "Hasteko, uste dut halako jokaldi batean atezainari dagokion lekuan zegoela. Baina zama horrekin bizi behar izan du aurrerantzean. Pena da, gehiago gogoratzen delako gol hura, igoeraren urtean Sabadellen gelditu zuen penalti erabakigarria baino".

Denetarik bizi izan du Xabier Oterminek, Real Unionen egin dituen hamalau denboraldietan: play off-etan zapuztutako ilusioak, Errege Kopako balentriak, Bigarren Mailako esperientzia... Eta bukatzeko, azken denboraldian Federazio Kopa Stadium Galen altxatzeko aukera. "Oso ederra izan zen", onartu du atezainak. Ondoren, baina, erretiroa hartzeko unea heldu zaio Otermini. Triste utziko duen arren, Real Union "barru-barruan" eramango duela baieztatu du. Stadium Galeko zaleek ere ez dute Xabier Otermin ahaztuko. Klubaren historian sartu da, partida gehien jokatu duen futbolaria baita. 444 neurketa ofizial izan dira, guztira. "Sinestezina da, eromena, gaur egungo futbola nolakoa den kontuan hartuta", nabarmendu du Ricardo Costak. Klubak omenaldia egingo diola pentsatu nahi du atezainen entrenatzaileak. Momentuz, zaratarik atera gabe utzi du Oterminek Real Union. Beti bezain isil eta apal.

“Pozik gaude eskaintzen dugun zerbitzuarekin”



Errefortzuko txanda amaitu berri du Demetrio Grijalbak Irungo erromesen aterpetxean. Arduradun bakarra izaten da bertan normalean, baina udako hilabeteetan ezinbesteko dute laguntza gehigarria. Uztailan eta abuztuan egunero betetzen dituzte erromesek aterpetxeko 48 oheak. Eguerdiko ordu bietan ilara egiten egoten dira jada, Lucas de Berroa kaleko atarian. 2014an 5414 erromes hartu zituen aterpetxeak, apiriletik urrira arte. Aurten , 3717 zenbatu zituzten uztailaren amaieran. “Kostako Bideko Orreaga da Irun. Bideari ekitera etortzen dira erromesak. Hori ona da Irun hiriarentzat. 52 herrialde ezberdinetako erromesak izan ditugu aterpetxean”, gogoratu du Grijalbak. Duela hamabost urte egin zuen bere lehen Donejakue bidea. Harrezkero, bideari estu lotuta jarraitu du. Jacobi Irun-Bidasoa Donejakue Elkarteko presidentea da.

Noiz ezagutu zenuen Donejakue bidea?
2000.urtean egin nuen lehen aldiz, emaztearekin, jubilatu ondoren. Hasieratik harrapatu ninduen. Aurrerantzean, urtero egin izan dut bide ezberdin bat, hutsik egin gabe. Ikaragarri gustatzen zait bide berriak ezagutzea. Gainera, elkartearen ikuspegitik begiratuta, komeni zait, bulegoan informazioa eman ahal izateko.

Zergatik erabaki zenuen elkartea osatzea?
2001. urtean bertan eman genuen izena Gipuzkoako Donejakue Bideen Lagunen Elkartean. Ez hori bakarrik, Irunen antzeko zerbait martxan jartzeko asmoa azaldu genien. Haien jarraibideei segika, Irungo Udalarekin harremanetan jarri ginen. Hasieran ospitale zaharreko gela bat utzi ziguten, baina agendaren arabera funtzionatzen zuenez, ez zen erosoa. Azkenean Foru Kaleko pisua utzi ziguten, bulego iraunkorra zabaldu ahal izateko.

Zein da bulegoaren funtzioa?
Eskualdeko erromesei, edo erromes izan nahi dutenei informazioa eskaintzen diegu. Batzuk, Donejakue bidea ezagutzen dutenak, erromesaren egiaztagiriaren bila etortzen dira bakarrik. Beste batzuk ideia handirik gabe iristen dira, zerotik hasita informatzera. Guk oinarrizko txosten bat prest izaten dugu beti, abiapuntu izan daitekeena. Liburuxkak eta triptikoak ere baditugu: etapen profilak, mapak, aterpetxeen zerrendak etab.

Bestelako jarduerak ere bideratzen dituzue, Donejakue bidea sustatzeko asmoz.
Ekintza soziokulturalak antolatzen ditugu. Ezagunena, urteroko Donejakue astea. Egitarau zabala izaten dugu: hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, ibilbide gidatuak, kontzertuak etab. Noski, guzti horrek aurrekontu baten beharra dakar. Udalak diru-laguntza bat ematen digu, baina gehiena, erromesek aterpetxean borondatez ematen dutenari esker biltzen dugu.

Nola lortu zenuten Irunen erromesen aterpetxe bat zabaltzea?
Elkartea martxan jarri genuenean, konturatu ginen Irunen zebilen erromesen kopurua gero eta handiagoa zela. Motxilarekin eta makilarekin zebilen jendea tren geltokiaren inguruan. Garai hartan erromesen aterpetxerik ez zegoen. Hoteletan, hostaletan eta pentsioetan lo egin behar izaten zuen jendeak. Hori, 30 eguneko ibilbidea egin behar duen erromesarentzat, onartu ezineko luxua da. 2003an egin genion eskaria Irungo Udalari, eta hurrengo urtean, Lucas de Berroa kalean zegoen Alberditarren etxea utzi ziguten. Hantxe izan genuen lehen aterpetxea, eraikina bota zuten arte.

Lucas de Berroa kalean bertan dago orain aterpetxea. Pixka bat beherago, 18. zenbakian.
Gaur egun, parez pare dauden bi pisu ditugu, eta etxabe zabal bat azpian. Lan handia egin behar izan genuen guzti hura garbitzeko, txukuntzeko eta prestatzeko. Baina orain, aterpetxe duina dugu. Pozik gaude eskaintzen dugun zerbitzuarekin. 48 ohe, komunak, sukaldea eta biltegia ditugu. Goizean, bideari ekin aurretik, gosaria ematen diegu erromesei. Guzti hori, borondatearen truke.

Ostatua baino zerbait gehiago ere bada aterpetxea. Giro berezia sortzen da erromesen artean?
Jakina. Elkar ezagutzen ez duten arren, segituan hasten dira erromesak haien artean hitz egiten, Donejakue bidearen abenturaren inguruan. Gosariaren ordua aproposa izaten da horretarako. Batzuetan taldetxotan ekiten diote bideari. Hori beste pentsioetan edo hostaletan ez da gertatzen.

Kostako bidea ezezaguna izan da urtetan, bigarren mailakoa. Hori aldatzen ari da, ordea. Nolako bidea da?
Bigarren mailakoa da oraindik ere. Santiagora doan erromesen kopuruaren %10 besterik ez du hartzen. Baina gora egiten ari da pixkanaka. Kostako bideak duen berezitasunik handiena da bide marinela dela. Itsasoaren ondotik joaten baita ia etapa guztietan, Galizian sartzen den arte. Bide gogorra da, hori bai. Gorabehera etengabeak ditu. Aterpetxera iristen den jende askok ez daki hori. Desinformazio geografiko edo klimatiko handia izaten dute. Batzuk zira gabe etortzen dira, hemen egiten duen euri jasarekin. Edo beroki ikaragarriekin, Siberiara joango balira bezala. Azpimarratu nahi nuke aldez aurretik informatzea garrantzitsua dela.

El Pilar Ikastetxea. 6. maila

BARREZ LEHERTZEN

Soldadu batek galdetu dio beste bati:
- Zertan ari zara?
- Hementxe, emazteari idazten!
- Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

Kartzelara iritsi berria den batek galdetu dio beste bati:
- Eta zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako ateratzen uzten!

Bi emakume elkartu dira, eta batak besteari esan dio:
- Nire senarra aingeru bat da!
- Hori zortea! - erantzun dio besteak. - Nirea bizirik dago oraindik!

- Ama, ama! Ikastolan despistatua naizela esaten didate!
- Aizu, motel, utz nazazu bakean eta joan zaitez zure amarengana!

Gizon bat medikuarengana joaten da eta esaten dio:
- Mediku jauna, arazo bat daukat! Nire puzkerrek ez dute usainik!
- Hori ez da posible!! Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- PPPPPPPRRRRRRR!!!!!
- Hori oso larria da. Ebakuntza bat behar duzu!
- Ipurdian?
- Ez gizona, ez, sudurrean!

Neska batek esaten dio amari:
- Gaur eskolan txikle bat eman didate zuhaitz batera igotzeagatik!
- Baina, baina, ez dakizu hori egin dutela zure kuleroak ikusteko?
- Bai, badakit! Baina oso azkarra naizenez, kuleroak kendu ditut.

Matematikako andereñoak Mikeli:
- Esadazu, nola banatuko zenituzke hiru patata hamar lagunen artean?
- Oso erraz, purea eginez!!

Harategian:
- Txerri buru hori mesedez!!
Eta harakinak erantzun dio:
- Barkatu, andere, baina hori ispilu bat da!!!

Txingudi Ikastola BHI 1. maila. Jon Namib Martinez Ubierna

Aipamen berezia

1. ASKO ZEKIEN MUTIKOA

Bazen behin, herri txiki batean bizi zen mutiko bat, Asier izenekoa. Mutiko horrek asko zekien animaliei buruz, gehiegi zekiela esango nuke. Eskolatik iristean, beti liburu potolo bat hartu, eta irakurtzen hasten zen. Normalean, 6-7 ateratzen zuen azterketetan, baina animalien gaiarekin hasi zirenean, irakasleari zuzenketak egiten zizkion. Bere ama harrituta gelditu zen etxera 10ekoa ekarri zuenenean. 6. mailan zegoen arren, batxilergokoei animaliei buruzko azalpenak ematera joaten zen.

2. FURGONETA MISTERIOTSUA

Egun batean, furgoneta bat iritsi zen. Asierren bila zetozen, eta gizon bat atera zen furgonetatik. Ez zen gizon txarra, Asierrek asko zekiela konturatu zenean, pena sentitu zuen, animalia asko ikusteko adina diru ez zuelako mutilak. Orduan, proposatu zion bere bi lagunekin batera safarian joatea. Asier oso pozik jarri zen, eta bere bi lagun hoberenei esan zien joateko, Landerri eta Egoitzi. Ideia bikaina iruditu zitzaien. Familiak agurtu eta furgonetara igo ziren. Hamabost eguneko txangoa izango zen. Hegazkin bat hartu eta Namibiako aireportura iritsi ziren, hamaika ordutan. Bi ordu eta erdi ibili ziren Namib basamortuan zehar, eta azkenean, leku egoki batetara iritsi ziren. Egun zoragarria izango zuten.

3. BABUINO MADARIKATUAK

Hurrengo egunean, zebrak eta lemurrak ikusi zituzten, baita lehoiak ere. Asierren ametsa zen hura. Hurrengo eguna mangoak biltzen eta legatza arrantzatzen eman zuten. Bi mango eta 3 legatz bildu zituzten.

Afaria legatz bat izango zen hirurentzako, eta mangoak gosaria. Legatza jan eta ohera joan ziren. Hurrengo egunean, gizonarekin furgonetan joan nahi zuten sabanako mugak ikustera. “Todoterreno” bat zeukanez, bazuten joateko aukera. Hori baino lehen, gosaltzera joan zirenean, ez zuten ez legatzik ezta mangorik ere aurkitu. Gizon batek, Afrikan behin baino gehiagotan egondakoak, esan zien babuinoak izan zirela lapurrrak.

4. ZALDIARENGANDIK IHESI

Herrira joan ziren janari bila eta txangoa hurrengo egunerako utzi zuten. Egun lasaia izan zen eta kartetan jolasten, irakurtzen... pasa zuten. Hurrengo egunean, txangora joan ziren eta oryxak ikusi zituzten. Sabanan sartu ziren, eta animalia piloa ikusi zuten: gazteak, kuduak, antilopeak, ñuak... baina zaldi bat ere ikusi zuten.

- Hemen zaldiak ba al daude? Esan zuen Egoitzek.

- Ez ba. - Esan zuen Asierrek.

Furgonetatik jaitsi eta zaldia beraiengana joan zen. Eskerrak furgonetatik hurbil zeuden, bestela...

Furgonetan burua sartu zuen zaldiak, eta algaraka hasi zen. Guztiak garrasi bizian hasi ziren eta zaldia furgonetari ostikoak ematen hasi zen. Gizonak ziztu bizian jarri zuen martxan autoa. Zaldia bistaz galdu zuten eta lasaitu egin ziren.

5. HIPIKA AFRIKAN?

Iristean, herritik paseo bat ematera joan ziren, herritik pixka bat atera eta zaldi madarikatua berriro aurkitu zuten. Zaldia askoz azkarragoa zen eta irtenbide bakarra ezkutatzea izan zen. Herrian, zaldi piloa ikusi zuten. Kartel batean ondorengoa irakurri zuten: HIPIKA ESKOLA.

- Hipika Afrikan? - Esan zuten hirurek.

Zaldia etortzen ikusi zuten, eta hauxe esan zuten:

- Kaka putza...

Orduan Hipikatik gizon bat atera zen, eta oihu egin zuen.

- OIHUUUUU!

- Oihu? esan zuten, harrituta.

Gizonak azaldu zien bere zaldi bat zela eta Oihu zuela izena, oihu asko egiten zuelako.

- Ikusi dugu, bai...

- Espero dut ezer ez egin izana.- esan zuen gizonak.

Ez ziela ezer egin esan zioten (gezurra) eta etxera bueltatu ziren.

6. ALGARAKA

Kanpin dendara bueltatu zirenean, babuino bat mango batekin ateratzen ikusi zuten. Alferrik, plastikozkoa baitzen, eta joan zenean, barrez hasi ziren guztiak. Egunak pasa eta etxera bueltatu ziren. Lagunak eta familia galdezka ari ziren. Guztiek berdina esan zuten:

- Munduko oporrik hoberenak izan dira!

Eta zaldiaren istorioa kontatzean, guztiak barrez algaraka hasi ziren.

Internetera sarbidea eta bretxa digitala

Gero eta ohikoago bilakatzen ari da “bretxa digital” esamoldea. Jende askok teknologia berriekin harremanetan jartzerako orduan topatzen duen hesiari egiten dio erreferentzia. Adinak edo kultur mailak eragin ditzake zailtasunak, interfaze digitala erabiltzerako orduan, esate baterako. Beste batzuetan, berriz, komunikazioko gailu teknologikoak erabiltzeko ezintasuna ekonomikoa edo fisikoa izan daiteke.

Gure aitonarentzat egingarria izan daiteke tablet batean egunkari baten orrialde batetik bestera pasatzea. Baina momentu jakin batean wifi sarez aldatzea, aldiz, gainditu ezineko hesia izan daiteke. Itsua den norbaitentzat Facebook-en nabigatzea esperientzia pobrea da, ez delako gai irudiak eta bideoak bezalako multimedia edukiak irakurtzeko, interprete lana egingo duen ordezko deskripziorik ez baldin badago, behintzat. Botoi edo esteka txikiak dituen web gunea infernu bilakatu daiteke, mugikortasun arazoak direla eta, sagua protesi batekin erabiltzen duen pertsona batentzat.

Aldi berean, modu telematikoan burutu daitezkeen prozesu burokratikoetan aurrerapen handia egin dute: zorretan, eskarietan, baimenetan, ziurtagirietan etab. Baina horietan aurkitzen dugu arazo gehien, hain zuzen ere, sarbideari dagokionean.

2008az geroztik, erakundeen web guneak AA mailako sarbidea edukitzera derrigortzen ditu lege batek. Horrek esan nahi du ikusmen, entzumen, mugikortasun edo adimen urritasuna duten pertsonek arazorik gabe ulertu eta erabili ahal izango dutela web gunea. Maila hori ziurtatzeko, erakundeen web guneek arautegi tekniko zorrotz bat betetzeko adostasuna agerian utzi behar izaten dute, adierazpen baten bidez.

Baina udalen, diputazioen, gobernu autonomikoen, ospitaleen, ikastetxeen edo liburutegien web guneak aztertzen baldin baditugu, ikusiko dugu nola gehienetan ez dagoen halako adierazpenik. Batzuetan badago, baina ez da betetzen. Gutxiengo dira adierazpen xehea eduki eta zintzo betetzen dutenak. Enpresa handien web guneek ere bete behar izaten dituzte arau horiek.

2008az geroztik legea indarrean dagoen arren, eta betetzen ez duenarentzat isun handiak ezartzen baditu ere, kasu bakarra ere ez dute zigortu orain arte. Orduan, zertarako sortu informazioaren gestiorako eta sarbiderako berdintasun legeak, betetzen direla bermatzen ez baldin badugu?

Web gune horietako arduradunetako asko gonbidatuko nituzke, ordenagailuaren aurrean gorra edo itsua den pertsona batekin esertzera. Edo azaldu diezaiotela, bestela, adineko norbaiti, zergatik ezin duen gidabaimena berritu, Trafiko Zuzendaritza Nagusian hitzordua hartzen ez dakielako.

Sentiberatasun teknologiko handia falta zaigu oraindik. Ez da begirune kontua, eskubideena baizik.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Distantziak laburtu ditu folkloreak

Irundik urrutiko lau talde aritu dira Eraikik antolatutako Gaztefolk jaialdian

Gaztefolk jaialdiaren amaiera gogorra izan da parte hartzaileentzat. Sei egun besterik ez dituzte eman elkarrekin talde ezberdinetako dantzariek eta musikariek. Baina harreman berezia sortu da haien artean. Horregatik, azken agurra ez da samurra izan. Edonola ere, taldeek jaialdiarekin "asebeteta" amaitu dutela baieztatu du Koldo Ribera Eraiki Dantza Taldeko kideak. Dantzak eta musikak Irunen, Hondarribian, Beran eta Zumaian erakusteko aukera izan dute.

Uztailaren 23tik 28ra zenbait ekitaldi izan ziren Irunen, Hondarribian, Beran eta Zumaian.

Munduko lau toki ezberdinetako taldeak izan dira aurten, Eraikirekin batera, Irungo dantza taldeak antolatutako Gaztefolk jaialdian: Valentziako Sargantana, Eslovaquiako Zornicka, Bulgariako Zargoche eta Errusiako Federazioaren parte den Buryatia herrialdeko Selenga Dance Ensemble. Taldeon maila azpimarratu du Koldo Ribera Eraikiko kideak: "Kalitate handiko lau talde ikusi ditugu, bai dantzaren arloan, baita musikalean ere". Festibaleko jardueretan ikusle izan direnak dira maila horren lekuko. Gero eta gehiago dira, errotutako ekimena baita Gaztefolk Irunen.

Haien folklorearen lagin bat erakustera etorri dira taldeak, eta aukera aproposa izan dute: kalean desfilatu dute, plazetan eta eszenatoki itxietan dantzatu dute eta lau herri bisitatu dituzte. Gainera, ikusle kopuru esanguratsua izan dute aurrean. "Aldaketa batzuk egin ditugu egitarauan, eta uste dugu pixkanaka publikoaren ordutegira moldatzen ari garela", argitu du Riberak. Festibala publikoarengana hurbiltzeko ahalegina egin du Eraikik. Esate baterako, Irungo erdigunean aritzeaz gain, desfileak auzoetan egin dituztela azaldu du Koldo Riberak: "Behobin, San Migelen eta Santiagon egon gara. Baita Mendibil merkataritza gunean ere. Horrek jendearen arreta erakartzen du".

Guztira 150 gazte baino gehiago hartu ditu Eraikik, Gazteluzahar eskolan antolatzen duen aterpetxe inprobisatuan. Horrek erronka handia dakar antolakuntzaren aldetik. "Ostatu zerbitzua ahalik eta era txukunenean eskaintzen saiatzen gara". Eraikiren inguruko boluntarioen lanari esker erantzuten diete behar gehienei. Jaialdi osoan zehar, kanpoko laguntza ezinbestekoa izaten da, hala ere. Elkarte gastronomikoen, Bidashop merkatarien elkartearen eta AFI-IAE argazkilaritza elkartearen babesa nabarmendu du Koldo Riberak. Baita udalarena eta udaltzaingoarena ere. Enpresa pribatuen ahaleginari dagokionez, merezi izan duela uste du: "Jaialdiak hartu duen tamaina eta sortzen duen interesa ikusita, aukera ona da formatu publizitario moduan".

Elkartruke aberasgarria izan da

Jaialdiko lehen egunean besterik ez zuen iraun hasierako lotsak. Bigarrenean, herri kirolen lehiaketa egin zuten San Juan plazan. Han sortu ziren lehen kontaktuak, eta hortik aurrera, harreman naturala izan zenparte hartzaileen artean. Urrunetik etorritakoak ziren gaztetxo asko. Buryatiakoek, adibidez, 10.000 km baino gehiago egin zituzten Irunera iristeko. Munduaren beste puntan bizi dira, eta zeharo ezberdina da haien kultura. Alabaina, erraz aurkitu zuten Eraikiko euskaldunekiko lotura. "Harrigarria da. Gazteek oso harreman estua lortzen dute denbora gutxian. Irekiak dira, ez dute konplexurik", aipatu du Riberak.

2016an 20 urte beteko ditu Eraikik antolatutako folklore jaialdiak. Atzera begirakoa egingo dute, aspaldiko lagunak berriro ekarriko dituztelako. "Oso talde onak izango dira", ziurtatu du Koldo Riberak. Momentuz, ezin dute gehiago aurreratu. Urte osoa dute oraindik 20. edizioa antolatzeko.

2015/2016 Matrikula Hizkuntza Eskola Ofiziala

Zer? 2014-2015 ikasturtean zehar ikasle ofizialak izan direnak eta pertsona berriak.

Matrikulazioak noiz:
- Ekainean GAI: irailaren 1etik 18ra (13:00ak baino lehen)
- Ekainean EZ GAI: irailaren 15etik 18ra

Non? Eskaera ON LINE egin beharko da.

Ondorengo helbidean egin daiteke:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak
Matrikula Ofiziala / Matrikulazioa / Matrikula eskaerak.

Your first EURES job: Europan lana bilatzeko diru-laguntzak

Abantailak:
- Europako beste estatu batean lan elkarrizketa bat egiteko desplazamenduak.

- Europar herrialde batean lana aurkitu duzunean, bertara bidaia edo aldi baterako ostatua.
- Titulua dagokion europar herrialdean ontzat emateak ekar ditzakeen gastuak.

- Estatu horretako hizkuntza ikasteko ikastaro intentsiboak, beti ere lan berria garatzeko lagungarriak baldin badira.- Beharrizan bereziek sortutako ez-ohiko laguntzak, justifikatuta daudenean. Laguntzak ekintza horiek burutu baino lehen eskatu beharko dira.

Baldintzak?
-18 eta 35 urte arteko adina izatea. EBko estatu bateko biztanle izatea (edo Norvegiakoa do Islandiakoa)

- Aurretik aipatutako herrialdeetako batean modu legalean bizitzen egotea eta beste herrialde batean lana bilatzen aritzea.

- EURES sarearen bitartez lana eskatzea. Lan hori gutxienez 6 hilabetekoa izan beharko da, eta behintzat asteko jardunaldi arruntaren %50ekoa izan beharko da.

Epea: ez dago epe zehatzik.

Informazioa eta izena ematea: luz-mar.banos@sepe.es

GAZTE OLINPIADAK

Zer? #GazteOlinpiadak antolatuko dira, kirolaren balio sozialak eta parte-hartzea elkartuko dituen ekimena.

Noiz eta non? Hiru lehiaketa antolatuko dira:

- Goallball Bilbon (irailak 19),

- Saskibaloia Gasteizen (irailak 26)

- Boleibola Donostian (urriak 18).

Izena emateko epea: Bakarka edo taldeka. Dagoeneko irekita dago. www.egk.org webgunean aurki daitezkeen bi formularioen bidez.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2.behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

AMA XANTALENGO JAIAK

Noiz? Abuztuak 16

Non? Urdanibia plazan.

Egitaraua?

12:00: Tortila lehiaketa
12:00: Zaku lasterketa
12:30: Toka txapelketa
16:00: Mus txapelketa
18:00: Mursegoren kontzertua
19:30: Bertso saioa: Igor Elortza, Egoitz Zelaia eta Ion Maia

SAN RAMON JAIAK

Noiz? Abuztuak 31

Non? Kale Nagusian.

Egitaraua?

11:00: Meza Gurutzearen Mirabean.
12:00: Koheteak botako dituzte eta salda emango zaie hurbiltzen direnei.
14:00: Herri Bazkaria Batzokian.
17:00: Toka txapelketa.
18:30: Sokatira.
19:30: Alpargata jaurtiketa txapelketa.
20:45: Meaka Dantza Taldearen emanaldia.
21:00etatik 23:00etara: "Purkoipa" taldearen kontzertua.
21:30: Dastaketa festejadoraren eskutik.
24:00: Zezensuzkoa eta kalekorrika.

LAPURRITURRIKO EGITARAUA

"GINKANA"

Zer? Probaz proba, hainbat oztopo gainditu beharko dituzte haurrek. Era berean, Aiako Harria Parke Naturaleko kondairak eta bizipenak ezagutuko dituzte.

Noiz? Abuztuak 20.

Ordutegia? 09:30etik 13:00etara gutxi gorabehera.

Non? Lapurriturriko informazio gunean. (PK 11,470 errepidea GI-3454 Erlaitz)

Prezioa? Doan.

Telefonoa? 010/943505152

"ERLAITZ IRUGURU TZETA MENDI BIRA"

Zer? Lapurriturri informazio puntutik abiatuta, Meazuriko inguruak bisitatuko dira, ondoren, basoan barrena Irugurutzetako labeetara jaisteko. Bertan, labeak baita minazulo bat ere bisitatuko dira.

Noiz? Abuztuak 20.

Ordutegia? 09:30etik 13:00etara gutxi gorabehera.

Non? Jasotze puntua: Ola sagardotegia

Prezioa? Doan.

"EXPERIMENTATUZ"

Zer? Naturarekin experimentatuz, eta bertako animalien eta landareen bizitza ezagutuz, haurrek mural bizi bat osatuko dute.

Noiz? Abuztuak 27.

Ordutegia? 09:30etik 13:00etara, gutxi gorabehera.

Non? Lapurriturriko informazio gunean. (PK 11,470 errepidea GI-3454 Erlaitz)

Prezioa? Doan.

Telefonoa? 010/943505152

"COMETE SAREA"

Zer? Espioien jolasen bidez, II. Mundu Gerran Comete Sareko kideek lurrera botatako hegazkinetako pilotuei muga pasatzen nola laguntzen zieten ezagutuko dute haurrek.

Noiz? Abuztuak 27.

Ordutegia? 09:30etik 13:00etara gutxi gorabehera.

Non? Lapuriturriko informazio gunean. (PK 11,470 errepidea GI-3454 Erlaitz)

Prezioa? Doan.

Telefonoa? 010/943505152

BIDASOA FOLK FESTIBALA

Noiz? Abuztuak 22

Non? Urdanibia plazan.

Egitaraua?

20:30: Manuel Luna Cuarteto (Murcia)
21:30: Naheba (Cantabria)
22:30: Cesare dell´Anna (Italia)
Oharra: Abuztuaren 21ean eta 23an Hondarribin eta Hendaian kontzertuak izango didra.

Abuztuak 21

Zer? Girabiraren jardunaldian zinema filmak emango dituzte.

Ordua? 21:00etatik-24:00etara.

Non? Alai Txoko parkean

Prezioa? Doako sarrera

Abuztuak 21

Zer? Familientzako antzerkia el Cau de l´Unicorn-en eskutik.

Non? Urdanibia plazan

Ordua? 12:00etan

Prezioa? Doako sarrera

Abuztuak 22 VIII. Bilduma Azkoa eta Paul San Martinen kontzertua.

Non? Zabaltza plazan

Ordua? 10:00etatik 21:00etara (19:00: Paul San Martin kontzertuan).

Prezioa? Doako sarrera

Caser
RESIDENCIAL

Oztoporik gabeko bainua

Hirugarren urtez jarraian, Oztoporik gabeko bainua zerbitzuaren babesleetariko bat izan da Caser Residencial. Guztira bederatzi udatan antolatu dute ekimena. Bertan, mugikortasun murriztua duen edonori bainu bat hartzeko laguntza eskaintzen diote. Izena emateko aukera dago 651 902 666 telefonoan.

Caser Anakan eta Betharramen 6-7 pertsonako taldeak egiten dituzte uda osoan zehar, hondartzara joan nahi duten guztiek aukera izan dezaten. Esan beharra dago, gehienek parte hartu nahi izaten dutela, eta, uretan sartzea kostatzen zaien arren, gero ez dutela atera nahi izaten. Pasa den urtean Caserreko 90 egoiliarrek parte hartu zuten. Aurten, uztailaren 15ean hasi zen, eta abuztuaren 31n bukatuko da.